

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 498/2019 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Onespena ematea Isabel Martínez Díaz de Zugazúa andrea behin-behineko langile izendatzeari, aholkularitza bereziko zereginetarako**

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 artikuluan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapenean jasorikoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, foru aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden behin-behineko aholkulari berezi lanpostuak beteko dituztenak izendatzea.

Horregatik, diputatu nagusiak proposatuta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.11 artikulua aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Isabel Martínez Díaz de Zugazúa behin-behineko langileek betetzekoa den aholkulari teknikoaren lanposturako izendatzea (kode zenbakia: 1122.004). Erabaki honek 2019ko uztailaren 31tik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena- Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 30a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**